"KALE NAGUSIA: MERKATAL BIZITZARA BEGIRA DAGOEN LEIHOA" IZENEKO IDEIEN LEHIAKETARAKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRIAK

ARRAZOIEN AZALPENA

2013ko ekainaren 19an egindako saioan, Batzorde sozio-ekonomikoak bere adostasuna azaldu zuen ideien lehiaketa arautuko duten oinarriekin. Dokumentu honetan zehazten da lehiaketa hori garatzeko testuinguru espezifikoa.

"Kale Nagusia: merkatal bizitzara begira dagoen leihoa" izeneko ideien lehiaketa espazio bat izango da, mural eta marrazkien bidez azalpen-estrategiak erakustekoa, modu erakargarrian eta edozein publikok ulertzeko moduan. Lehiaketa horren ardatz eragilea bizitasunik ez duten espazioei bizitasuna ematea izango da.

Azkoitiko biztanleei aniztasun ordezkatzailea eta baldintza hobeak erakutsi nahi zaizkie, Kale Nagusian dauden espazio hutsen ulermenean laguntza emate aldera.

I. SUSTATZAILEA

Ideien lehiaketa hau Azkoitiko Udalak deitzen du. Entitate horren helburua, besteak beste, Kale Nagusian erabilerarik gabe dauden lokalak sustatzea da. Lehiaketaren antolaketa Kultura Saileko Merkataritza Zerbitzuari dagokio.

II. LEHIAKETAREN HELBURUA ETA SARIA

Helburua Kale Nagusia izeneko espazioko edukien proiektua idazteko egokien ikusten den proposamena hautatzea da, irizpide hauei jarraituz:

- Kale Nagusian dauden lokaletako erakusleihoak modu erakargarrian apaintzea, haiek balioetsiz, izan ere, denbora luze batean merkatal jarduerarik izan ez dutenez, kanpotik itxura zabar samarra dute.
- Azkoitiko alde historikoari duintasuna eta bizitasuna ematea.

Oinarri hauetan ezarritakoaren arabera, ideia irabazlea hautatzean hura proposatu duenari proiektua garatzea eskatu ahal zaio. Irabazle horrek alderdi hauek zehaztu beharko ditu:

- Oinarrizko proiektuaren betearazpena eta edukien exekuzioa. Derrigorrezko muntaia-eskuliburua barneratuko da.
- Instalazio-proiektua egitea eskudun teknikarien eskutik, eduki hauekin:
  - Proiektua osorik egiteko moduaren kudeaketa.
  - Proiektua egiteko aurrekontua.

Proposamena Azkoitiko Kale Nagusian hutsik dauden lokalen gainean garatuko da. Gehienez hamar lokal izango dira eta haietako erakusleihoak edo erakusketa-zonak erabiliko dira. Hormatuta badaude, parte-hartzaileek erabakiko duten nola apaindu. Antolatzaileek gainbegiratu egingo dituzte itxura modu adierazgarrian aldatzea eragiten duten proposamenak.

Ideia-proiektua hautatzerakoan, gehienezko aurrekontua 300,00€koa izango lokal bakoitzeko (exekuzioa, materialak edota muntaia barne). Ideia onenaren saria 2.000,00€koa izango da. Sari hori eta ideia egikaritzeko kostua 2013. urteari dagokion merkataritza arloko diru-laguntzen partidatik ordainduko dira. Espresuki adierazten da egikaritza materialean aurrekontuari dagokionez izan daitezkeen desbideratzeek ez dutela, inolaz ere, irabazleak jaso beharreko sariaren zenbatekoa areagotuko.

Proposamenetan ekipamenduen diseinurako irizpide hauek bete beharko dira. Horrela, espazioak baldintza hauek bete beharko ditu:

- Publiko guztientzat izatea, eduki bortitz, sexista, xenofobo edota baztertzailerik gabe.
- Itxura erakargarri eta originala izatea.
- Espazio aldetiko baldintza onenak bermatzea.
- Estilo aldetik ahalik eta aniztasun gehien eskaintzea.
- Erraz erabili eta mantentzeko instalazioak izatea.
- Instalazioa helarazi nahi den ideiarekin identifikatuko duten elementu berezi eta enblematikoz hornituta egotea.
- Lokalaren baldintzak direla eta, epaimahaiak beharrezkotzat jotzen badu, azken esku-hartzeak fatxadan edo erakusleihoan edo parametro baten gainean egin daitezke, lokalaren barneko aldetik.

III. PARTE-HARTZAILEAK

Ideien lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute adin nagusikoak diren pertsona fisiko guztiek eta pertsona juridikoek.

Interesdunak indibidualki edo taldean aurkez daitezke. Taldean aurkeztuz gero, proposamena kide batek helaraziko du, eta hori izango da Udalaren aurrean arduraduna.

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek erabat eta baldintzarik gabe onartzea.

Onuradun gisa hartuak izango dira diru-laguntza onartzeko funtsezko egoeran dauden pertsona edo entitateak, edo oinarri arautzailean eta deialdian aurreikusten diren egoeretan daudenak.

Ezingo dira oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzen onuradun izan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 13. artikuluan adierazten diren egoeretako batean dauden pertsona edo entitateak.

IV. AURKEZPEN-PROZEDURA ETA -EPEAK

"Kale Nagusia: merkatal bizitzara begira dagoen leihoa" izeneko ideien lehiaketa publikoa eta irekia da, epaimahai batek ebaztekoa.

Lehiaketa fase bakarrean garatuko da eta bertan parte hartzeko dagozkion proposamen teknikoak aurkeztu beharko dira. Epaimahai batek hartuko ditu erabaki edo irizpenak, modu inpartzialean. Horretarako interesdunek aurkeztutako dokumentazioan oinarrituko da eta soilik lehiaketa honetako oinarrietan adierazten diren irizpideei jarraituko die.

Ondoen balioesten den proposamenak gauzatuko du proiektua.

Proiektu irabazleak 2.000,00 €ko saria jasoko du. Zenbateko horretan ez dago barne proiektu hori egiteko zenbatekoa. Proiektua epaimahaiak epaia eman osteko hilabeteetan gauzatuko da eta ezingo da 3.000,00 €ko zenbatekoa gainditu (300,00 €/lokaleko).

Dokumentazioan eta lehiaketaren garapenean erabiliko den hizkuntza ofiziala euskara izango da. Horrenbestez, dokumentazioa beste hizkuntza batean aurkezten bada, euskarazko itzulpen ofiziala aurkeztu beharko da. Baldintza hori betetzen ez duena hautaketa-prozeduratik kanpo geratuko da.

Lehiaketak epe hauek izango ditu:

- Lehiaketaren oinarriak Azkoitiko Udaleko Herritarren Arretarako Bulegoan edo Kultura Sailean jaso ahal izango dira uztailaren 15etik aurrera. Halaber, Udalaren webgunean oinarri horiek ikusgai izango dira.
- Lehiaketan parte hartzeko proposamenak aurkezteko epea: 2013ko irailaren 13ra artekoa.
- Lanak Torrezuri aretoan aurkeztuko dira irailaren 20, 21 eta 22an, herritarren partaidetza-botoa lortze aldera.
- Hautaketa 2013ko irailaren 23 eta 27 artean egingo da. Epaimahaiaren erabakia dagozkion iragarki ofizialetan, Udalaren webgunean eta prentsan argitaratuko da. Lehenik eta behin, hautatuari jakinaraziko zaio eta, ondoren, lehiakide guztiei jakinaraziko zaie indibidualki, lehiaketaren inguruko erabaki hartu eta hurrengo astearen barruan. Partaidetza berresten ez bada sariari uko egiten zaiola ulertuko da. Hala, aurkeztutako beste zirriborro batzuk hartuko dira aintzat, epaimahaiak hautaketa-hurrenkeran erabakitakoari jarraituz.

- Hautatutako proiektua azaroaren 29 eta 30erako (San Andres eguna) gauzatu beharko da. Saria Azkoitiko Udaleko osoko bilkuren aretoan emango da.

V. ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA ETA HAUTAPEN-IRIZPIDEAK

V.i. PARTE HARTZEKO ESKAERAK ETA AURKEZTEKO DOKUMENTAZIOA.
Ideien lehiaketan parte hartzeko eskaerak gutun-azal itxi batean aurkeztuko dira. Gutun-azal horretan lehiaketaren izenburua, data eta ezizena adierazi beharko dira eta helbide honetara igorri beharko da. Azkoitiko Udala. Herriko Plaza z/g. Herritarren Harretarako Bulegoan edo Kultura Sailean.

V.ii "KALE NAGUSIA: MERKATAL BIZITZARA BEGIRA DAGOEN LEIHOA" EDUKIEN PROIEKTURAKO IDEIEN LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO ESKAERA.

Eskabidea egiteko gutun-azalaren barruan hautagaiek 2 gutun-azal itxi sartuko dituzte. Gutun-azal horiek sinatuta egon beharko dira eta eduki hau izan beharko dute:

8.1.1. A GUTUN-AZALA. Izenburua – ezizena, kanpoan nahiz barruan idatzizko proiektua, bisuala A3 paperean eta aurrekontua A4 paperean.
8.1.2. B GUTUN-AZALA. Izenburua – ezizena, kanpoan nahiz barruan, parte-hartzailearen harremanetarako datuak eta NAN zenbakia.

Proposamen onena hautatzeko jarraian zehazten diren irizpideak hartuko dira kontuan:

1. **Kalitatea eta proiektuaren ingurunearekiko egokitzapena, 40 puntu gehienez** Kontuan hartuko da diseinua publiko guztientzat egokia izatea; aurkezpen erakargarri eta originala izatea, ulergarria, eta artistikoki zorrotza;
2. **Modu bisualean aurkeztutako proiektua, 30 puntu gehienez.** Aintzat hartuko da egingo den lanari buruzko irudiak, argazkiak edo collageak aurkeztea. Aintzat hartuko da kalitate artistiko eta teknikoa.
3. **Epaimahaiak aintzat har ditzakeen beste alderdi garrantzitsu zenbait, 5 puntu gehienez.** Epaimahaiaren ustez, baldintza teknikoetan ezarritakoa hobetzeko garrantzitsuak diren beste alderdi garrantzitsu batzuk izango dira.
4. **Herritarren partaidetzan jasotako botoak: 25 puntu gehienez.**

VI. EPAIMAHAIAREN ERAKETA

Lehiaketaren irabazlea epaimahaiak hautatuko du. Epaimahaikideak pertsona fisikoak izango dira, lehiaketako parte-hartzaileekin loturarik ez dutenak. Horrela, 2 ordezkari politikok, Udaleko 2 teknikarik (bulego teknikokoa eta kulturakoa) eta “Herrixen” merkatarien elkarteko teknikariak osatuko dute epaimahai hori. Aurkeztutako lanak jendartera zabalduko dira, botoa emateko aukera emanez. Modu horretan, herritarren partaidetza bultzatuko da.

Epaimahaiak V. atalean adierazitako hautapen-irizpideei jarraiki balioetsiko ditu aurkeztutako proposamenak. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

VI. ERAKUSKETA ETA PUBLIZITATEA

Lehiaketara aurkeztutako lanak Torrezuri aretoan izango dira ikusgai irailaren 20, 21 eta 22an, azkoitiarrek botoa eman dezaten.

Lehiaketaren oinarri eta emaitzak Azkoitiko Udalaren webgune ofizialean eta hainbat hedabidetan argitaratuko dira.

VII. JUSTIFIKAZIOA

Zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzakoak indarreko xedapenetan ezarrita bezala betetzearen kalterik gabe, diru-laguntzaren onuradunak, aldez aurretik, Udalarekin dituen betebehar fiskalak betetzen dituela egiaztatu beharko du. Horretarako, kontu-hartzaileak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du. Ziurtagiri horretan, ordainketaren borondatezko epealdia amaitu ostean, ordaintzeko zorrik ez dagoela agertu beharko da.

Diru-laguntza onartu eta eman ostean, hartzaileak jasotako funtsen aplikazioa justifikatu beharko du. Horretarako, xehetasunezko kontu bat aurkeztu beharko du, egindako inbertsioa diru-laguntzaren helburura bideratu dela egiaztatzeko faktura edo gainerako dokumentuak barneratuz. Ildo horretatik, kasu bakoitzean, Udalak onartutako Araudietan ezarritako prozedura aplikatuko da.

VIII. ARAUDI APLIKAGARRIA

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztirako Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorra, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren araudia onartzeko uztailaren 21eko 887/2006 errege dekretua eta Aurrekontua Betetzeko Udal Araudia aplikatuko dira.

IX. DATUEN TRATAMENDUA

Datu Pertsonalen Babeserako 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, jasotako datuak, helburuaren arabera, Azkoitiko Udaleko Informazio Sisteman sar daitezke.

Datu horiek soilik udal-kudeaketarako erabiliko dira. Gainera, beste herri-administrazio batzuei edo hirugarrenei laga edo helarazi ahal izango dira, legean ezarrita bezala. Interesdunek atzitu, ezereztatu, zuzendu eta aurkaratzeko eskubideak erabil ditzakete, Herritarren Arretarako Zerbitzuaren (HAZ) bidez.

Azkoitian, 2013ko uztailean.